

ADEMGI Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkarteak, Esklerosi Anizkoitza dutenen alde lan egiten du, gaixotasuna gizarteratuz eta gaixotasuna jasaten dutenen bizi kalitatea hobetzeko birgaitze zerbitzuak eskainiz.

07 ADEMGI Elkartearekin solasean:

Askotan behar izan arte ez zara ohartzen zein garrantzitsua den ondoan norbait izatea “animo, zuk ahal duzu” esanez.

Edo “emaidazu eskua eta jeiki” esango dizuna.

Edo “benga, beste behin!”.

Edo “begira, asko gara, ez zaude bakarrik”.

Eta zure sentipenak partekatzea, zure kezkak, garaipenak, momentu on eta txarrak.

Horregatik garrantzitsua da esklerosiaren eta Ademgiren berri zabaltzea, jendeak jakin dezan asko garela bide horretan laguntzeko prest gaudenak.

Are gehiago, ustez laguntzen duen hori da lagundua dena gehienetan. Zenbat irakaspen, zenbat ikasteko egunero borrokan ari direnengandik!

Pauso bat, garaipen bat.

Gure pauso txiki bat, jauzi handi bat izan liteke.

Bizitza ere anizkoitza delako.



08 BESTE PAUSO BAT

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Jon Maia

Ahotsak: Anari Alberdi eta Jon Maia

Pauso bat eman behar denean
esku bat aldamenean
nire zain izatea

Hitz bat esan nahi dudan unean
nire ezintasunean
zabaltzen den atea

Gure buruan
salto txiki bat
gure munduan
salto handi bat da

Salto hirukoitz handi handi bat

Zure pauso bakoitza gu
gu guztiontzat pauso bat
bizitza anizkoitza, zut
zuk emandako pauso bat,
gu gu guztion bizipoza da
zuk emandako pauso bat,
guztion bizipoza da

Bakarrik ez zaudela bidean
ez zurean ez nirean
sentitzen duzunean

Orain zurean bihar nirean
izan litekeen idean
bustitzen zarenean

Gure buruan
salto txiki bat
gure munduan
salto handi bat da

Salto hirukoitz handi handi bat

Zure pauso bakoitza gu
gu guztiontzat pauso bat
bizitza anizkoitza, zut
zuk emandako pauso bat,
gu gu guztion bizipoza da
zuk emandako pauso bat,
guztion bizipoza da

Zure pauso bakoitza gu
gu guztiontzat pauso bat
bizitza anizkoitza, zut
zuk emandako pauso bat,
gu guztion bizipoza da
zuk emandako pauso bat,
guztion bizipoza da
guztion bizipoza da